

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO  
BILERA**

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL  
AYUNTAMIENTO**

**2006ko maiatzaren 12a**

**12 de mayo de 2006**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta seigarren urteko maiatzaren hamabian, ortzirala, ilunabarreko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, alkate Juan Fermin Michelena Larralde jaunaren lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri direla: Juan Carlos Ayala Fernandez, Laura Yanci Michelena, Antonio Hidalgo Hidalgo, Pedro Apezteguía Alzugaray, José Esteban Echeveste Apezteguía, Deñe Abuin Arrasate, Fermín Alzugarai Igantzi, Tomás Maya Tapia, Gabriel Igarzabal Echavide eta José Ramón Taberna Arana jaun-andreak.

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes doce de mayo del año dos mil seis, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Juan Fermín Michelena Larralde y con la asistencia de los siguientes concejales: don Juan Carlos Ayala Fernández, doña Laura Yanci Michelena, don Antonio Hidalgo Hidalgo, don Pedro Apezteguía Alzugaray, don José Esteban Echeveste Apezteguía, doña Deñe Abuin Arrasate, don Fermín Alzugarai Igantzi, don Tomás Maya Tapia, don Gabriel Igarzabal Echavide y don José Ramón Taberna Arana.

Idazkari lanetan, udaleko Andoni Esparza Leibar jauna ari da.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira:


Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION  
AKTAREN ONESPENA.**

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA  
CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA  
SESIÓN.**

Haren edukiari buruz eztabaidatu ondotik, Udaltzako, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2006ko apirilaren 11koa.

Tras debatir su contenido, el Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 11 de abril de 2006.



**2 - ONDASUN KOMUNALEI  
BURUZKO TRANSAKZIO HITZARMENEN  
ONESPENA.**

1995eko urriaren 23ko 131. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri ondasunak berreskuratzeko Transakzio Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena.

Espedientean ageri dira hitzarmen zirraborroak, dagozkien txostenekin, Basarte S.L. enpresako Andres Zelaieta teknikari jaunak eginikoak. Era berean, denek jaso dute Udaleko mendi batzordearen ikus-oniritzia.

Espedientean ageri da, halaber, Udaleko idazkariak maiatzaren 8an eginiko txostena.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, horrela lortuz Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikulua, eta Toki Erregimeneko Oinarriari buruzko 7/1985 Legearen 47.2.n artikulua (azaroaren 16ko toki gobernu modernizatzeko neurriari buruzko 57/2003 Legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udaltzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua, erabaki du:

1 - Ondoko pertsonen proposaturiko herri ondasunei buruzko transakzio hitzarmenak onartzea:

- Alzate Ozcoidi, Genaro eta Maria Asunci6n eta Manuel Corta Tellechea. Arbolen balorazioa eranstean da, 198

**2 - APROBACI6N DE CONVENIOS  
TRANSACCIONALES DE BIENES  
COMUNALES.**

En el Bolet6n Oficial de Navarra n6 131, de 23 de octubre de 1995, se public6 el Decreto Foral 457/1995, de 9 de octubre, que aprobaba las Bases del Convenio Transaccional sobre recuperaci6n de bienes comunales en el municipio de Lesaka.



En el expediente constan los borradores de los convenios, que incluyen los correspondientes informes, emitidos por el t6cnico de la empresa Basarte S.L. don Andr6s Zelaieta. Todos ellos han recibido igualmente el visto bueno de la Comisi6n de Montes del Ayuntamiento.

Figura asimismo el informe emitido por el secretario del Ayuntamiento el d6a 8 de mayo.

A la vista de todo ello, el Pleno con el voto un6nime de sus miembros, con lo que se obtiene la mayor6a absoluta del n6mero legal de miembros de la Corporaci6n exigida por el art6culo 116.1 de la Ley Foral 6/1990, de la Administraci6n Local de Navarra y el art6culo 47.2 n de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del R6gimen Local (modificada por la Ley 57/2003, de 16 de noviembre, de medidas para la modernizaci6n del gobierno local), acuerda:

16) Aprobar los convenios transaccionales de bienes comunales propuestos por los siguientes se6ores:

- Alzate Ozcoidi Genaro y Mar6a Asunci6n y Manuel Corta Tellechea. Se le adjunta una valoraci6n de arbolado,



eurokoa.

- Ochoteco Tellechea, Fermín.
- Recondo Mugica, Rufinoren oinordekoak.

2 – Interesatuiei jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko dutela hitzarmena sinatzeko.

3 – Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guztien izapidetutako kopiak, hark onar ditzan, Oinarrietako 14 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4 – 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri ondasunen transakzio hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro karratua 0,16 eurotan baloratuko da.

por importe de 198 euros.

- Ochoteco Tellechea, Fermín.
- Recondo Múgica, herederos de Rufino.

2º) Comunicar a los interesados que deberán acudir al Ayuntamiento para firmarlo.

3º) Una vez cumplido lo dispuesto en el punto anterior, que se remitan copias diligenciadas de todos los documentos citados al Gobierno de Navarra, a fin de que éste proceda a su aprobación, de acuerdo a lo establecido en el artículo 14 de las Bases.

4º) Conforme a lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 30 de abril de 2004, el metro cuadrado de terreno rústico sujeto a convenio transaccional de bienes comunales se valorará en 0'16 euros.

### **3 – FRANCISCO JAVIER TELLECHEA TAPIA JAUNAREN ESKAERA, HERRI-LUR BATEN PROBETXAMENDUA LUZATZEKO.**

1996ko martxoaren 29ko Udalaren Osoko Bilkuraren erabakiaren bitartez, Francisco Javier Tellechea Tapia jaunari baimena eman zitzaion 6.270 m<sup>2</sup>ko herri-lur bat luberritzeko eta probetxatzeko, Tantazelai alderdian dagoena, Endara auzoan, eta 10 urterako.

Kontzesio epe hori 2006ko martxoaren 29an bukatu zen. Hori dela-eta, interesatuak, 2006ko ilbeltzaren 27ko idazki baten bidez (418. sarrera Erregistro Orokorrean, otsailaren 8koa), eskatu zuen bertzehamar urtez luzatzeko kontzesioa.

### **3 – PRÓRROGA DE APROVECHAMIENTO DE TERRENO COMUNAL SOLICITADA POR DON FRANCISCO JAVIER TELLECHEA TAPIA.**

Por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de fecha 29 de marzo de 1996, se le concedió a don Francisco Javier Tellechea Tapia autorización para roturar y aprovechar un terreno comunal de 6.270 m<sup>2</sup>, sito en el paraje de Tantazelai, en el barrio de Endara, por el plazo de 10 años.

Dicho plazo de concesión finalizó el día 29 de marzo de 2006. Por ello, el interesado, en escrito de fecha 27 de enero de 2006, (nº de entrada 418, de 8 de febrero, en el Registro General), solicitó que le fuera prorrogado por otros diez años.

Handwritten signatures and a stamp at the bottom of the page. The stamp is a circular seal with the number '3' in the center. There are several signatures in black ink, some overlapping the stamp.

Udaleko Mendi Batzordeak, apirilaren 19an eginiko bileran eskaera aztertu zuen eta haren alde informatu du.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, aho batez erabaki du:

1 – Francisco Javier Tellechea Tapia jaunari 2016ko abenduaren 31 arteko luzapena ematea, Tanta-Zelain dagoen herri-lurra, 6.270 m<sup>2</sup> dituen, probetxatzeko. Katastroko 9 poligonoko 19 lur-zatiaren d eta g azpipartzelen zati banari dagokio.

2 – Urteko kanona izanen da Udalak orokorrean ezartzen duena larre eta lur komunalak probetxatzeko.

3 – Udalak aldebakarrez ezabatu ahal izanen du eskubide hori, edozein unetan, hile bat lehenagotik abisua emanaz, eta adjudikaziodunak ez du inolako eskubiderik izanen kalte-ordainik jasotzeko.

**4 – HITZARMENAREN ONESPENA, MARIA JESÚS VILLANUEVA ILAREGUI ANDREAREKIN.**

2006ko maiatzaren 2an Alkatetzak hitzarmen bat sinatu du Maria Jesús Villanueva Ilarregui andrearekin, Alkaiaga auzoan dauden lur-eremuri buruzkoa, hirigintzako Udal Planeko U.E. 27 eta 28 unitateetan sartuta daudenak.

Haren arabera, Udalak interesatuari ondoko konpentsazioak ordainduko dizkio:

- 24.027,70 €, zoruaren eskubideengatik.

La Comisión de Montes del Ayuntamiento, en reunión celebrada el día 19 de abril analizó la petición y la ha informado favorablemente.

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1 – Conceder a don Francisco Javier Tellechea Tapia una prórroga hasta el 31 de diciembre de 2016 en el aprovechamiento del terreno comunal sito en Tanta-Zelai, de una superficie de 6.270 m<sup>2</sup>. Corresponde al polígono 9, parcela 19 d, parte, y g, parte, del catastro.

2 – El canon anual será el establecido por el Ayuntamiento, con carácter general, para el aprovechamiento de pastos y terrenos comunales.


3 – El Ayuntamiento podrá anular dicho derecho unilateralmente, en cualquier momento, previo aviso con un mes de antelación y sin que el adjudicatario tenga derecho a indemnización alguna.

**4 – APROBACIÓN DE CONVENIO CON DOÑA MARÍA JESÚS VILLANUEVA ILARREGUI.**

Con fecha 2 de mayo de 2006 la Alcaldía ha suscrito un convenio con doña María Jesús Villanueva Ilarregui y que se refiere a terrenos situados en el barrio de Alkaiaga e integrados en las U.E. 27 y 28 del Plan Municipal de urbanismo.

Conforme al mismo, el Ayuntamiento abonará a la interesada las siguientes compensaciones:

- 24.027,70 € por los derechos sobre el suelo.



Handwritten signatures and stamps at the bottom of the document. On the left, there is a large, stylized signature. In the center, there are several smaller signatures and a circular stamp. On the right, there are more signatures, including one that appears to be 'Foral'.

- 427 €, arbolengatik.

Hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, hitzarmenak balioa izateko Udaleko Osoko Bilkurak onartu beharko du.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak kide guztien aho bateko botoarekin, horrela lortuz Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikulua, eta Toki Erregimeneko Oinarriari buruzko 7/1985 Legearen 47.2.n artikulua (azaroaren 16ko toki gobernu modernizatzeko neurriari buruzko 57/2003 Legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua, erabaki du:

- 1 – Aipatutako hitzarmena onartzea.
- 2 – Erabaki honen berri ematea Villanueva andreaki, eta ordainketa egitea ezarritako epe barruan.

**5 – MIKEL ORTIZ DE URBINA OLAETXEA ALBIENTE JAUNAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.**

Apirilaren 11n (1.119. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea albiente jaunak eskatu du onartzeko, antzinatasun eta gradu ondorioetarako, bai Toki Poliziaren Oinarrizko Ikastaroa egiten pasatu zuen denbora, eta baita bertze Administrazio Publikoan eginiko lana ere. Horretarako, Nafarroako Gobernu Segurtasun Eskolako zuzendariak eginiko egiaztagiria ekarri du, eta hartan adierazten da ikastaroaren iraupena 2001eko irailaren 21etik 2002ko ekainaren 10eraino izan zela. Era berean,

- 427 € por el arbolado.

De acuerdo a lo previsto en el convenio, su validez queda supeditada a la aprobación de éste por el Pleno del Ayuntamiento.

A la vista de todo ello, el Pleno con el voto unánime de sus miembros, con lo que se obtiene la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación exigida por el artículo 116.1 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra y el artículo 47.2 n de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local (modificada por la Ley 57/2003, de 16 de noviembre, de medidas para la modernización del gobierno local), acuerda:

- 1º Aprobar el citado convenio.
- 2º Que se notifique el presente acuerdo a la señora Villanueva, procediéndose a realizar el pago dentro del periodo establecido.

**5 – SOLICITUD PRESENTADA POR EL ALGUACIL DON MIKEL GOTZON ORTIZ DE URBINA OLAETXEA**

Con fecha 11 de abril (entrada nº 1.119 en el Registro General del Ayuntamiento), el alguacil don Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea ha solicitado que le sea reconocido, a efectos de antigüedad y grado, tanto el tiempo durante el que realizó el Curso Básico de Policía Local, como el trabajado en otra Administración Pública. Ha aportado al respecto un certificado extendido por el director de la Escuela de Seguridad del Gobierno de Navarra, donde se señala que la duración del mismo se extendió desde el 21 de setiembre de 2001 hasta

Donostiako Udaleko egiaztagiria entregatu du, non adierazten den behin-behineko kontratuak izan dituela, guztira 102 egunez.

Galdekizun hauetako lehenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, 1997ko abenduaren 29ko erabakiaren bidez, 1998ko ilbeltzaren 21eko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioei aitortu zien, antzinatasun eta eskubide pasiboen ondorioetarako, haien funtzionario sartzeko hautapen prozesu barruan eginiko oposizio-prestakuntzako ikastaroaren iraupena. Baina, toki entitateentzat antzeko xedapenik ez denez onartu, horiek ez dute inolako obligaziorik zentzu honetan. Dena dela, Udalbatzak behin baino gehiagotan hartu ditu akordioak Lesakako udal funtzionarioen eskubideak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioenak parekatzeko.

Bertzalde, iraganean bertze langileri onartu zaio bertze Administrazio Publikoetan lan eginiko denbora.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du aintzat hartzea Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea jaunak eginiko eskaera, eta onartzea, antzinatasun eta gradu efektuetarako, bai Toki Poliziako Oinarrizko Ikastaroa egiten pasatako denbora, baita Donostiako Udalean lan eginikoa ere.

el 10 de junio de 2002. También ha entregado un certificado del Ayuntamiento de San Sebastián, donde precisa que ha tenido contratos eventuales por un periodo total de 102 días.


Respecto a la primera de estas cuestiones el Gobierno de Navarra, mediante acuerdo de 29 de diciembre de 1997 que fue publicado en el Boletín Oficial de Navarra nº 9, de 21 de enero de 1998, reconoció a los funcionarios de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra, a efectos de antigüedad y derechos pasivos, el tiempo de duración del curso de formación-oposición realizado por los mismos dentro del proceso selectivo para el ingreso como funcionarios. Pero, al no haberse aprobado una disposición similar para las entidades locales, éstas no tienen obligación alguna en este sentido. No obstante, la Corporación ha adoptado repetidos acuerdos, buscando la equiparación de derechos entre los funcionarios municipales de Lesaka y los de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra.

Por otra parte, se ha reconocido en el pasado a otros empleados el tiempo de trabajo desempeñado en otras Administraciones Públicas.

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad acceder a la solicitud formulada por don Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea y reconocerle, a efectos de antigüedad y grado, tanto el tiempo empleado en realizar el Curso Básico de Policía Local, como el trabajado para el Ayuntamiento de San Sebastián.

6 - IGERILEKU ESTALIKO OBREI

6 - ACUERDO SOBRE LAS OBRAS DE

The bottom of the document features several handwritten signatures and stamps. On the left side, there are three distinct signatures. In the center, there is a circular stamp containing the number '6'. On the right side, there are more signatures, including one that appears to be 'Teniente'.

## BURUZ.

Udalak, 2005eko abenduaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki zuen Lesakako igerileku estalia eraikitzeako kontratua Construcciones Ecay S.L.k, Unión de Montadores Eléctricos de Navarra S.L.k eta Soniclina Industrial S.L.-k osaturiko aldi baterako enpresa-elkarteari adjudikatzea, eskainitako 2.911.766,12 eurotan, gehi %16ko BEZa, guztira 3.377.660,30 euro (BEZ barne).

Iparraldeko Ur Konfederazioak, apirilaren 21eko errekerimendu baten bidez (1.243. sarrera Erregistro Orokorrean, apirilaren 27koa), adierazten du igerileku estaliko obrak gelditu beharko direla Konfederazioaren baimena izan arte. Hori egin ezean, adierazten dute Udalari zigorra ezartzen ahal zaiola, 6.000 euro arteko isunarekin.

Idazkariak txosten bat egin du maiatzaren 5ean, jarduera sailkatuari buruzko espedientearen tramitazioa ere nola doan aipatzen duena.

Azkenik, gaia Udaleko hirigintza batzordeak aztertu du maiatzaren 8an eginiko bileran. Kontutan hartuta lanen gelditzeak sortuko lituzkeen kalte handiak, adierazten dute egokiena dela obrekin segitzea, eta bitartean saiitzea espedientea legalizatzen.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du lanekin segitzea, inolako etenik egin gabe, horrela aurreikusitako epean bukatu ahal izateko. Bertzalde, eta bere teknikariek

## LA PISCINA CUBIERTA



El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada con fecha 23 de diciembre de 2005, acordó adjudicar el contrato para la construcción de la piscina cubierta de Lesaka a la Unión Temporal de Empresas formada por Construcciones Ecay S.L., Unión de Montadores Eléctricos de Navarra S.L. y Soniclina Industrial S.L., en la cantidad por ella ofertada de 2.911.766'12 €, mas el 16% de IVA, lo que supone un importe total de 3.377.660'30 € (IVA incluido).

La Confederación Hidrográfica del Norte, mediante un requerimiento de fecha 21 de abril (entrada nº 1.243, de 27 de abril, en el Registro General del Ayuntamiento) indica que deberán paralizarse las obras de la piscina cubierta hasta contar con la autorización de la Confederación. En caso contrario señalan que puede sancionarse al Ayuntamiento con una multa de hasta 6.000 euros.

El secretario ha emitido un informe de fecha 5 de mayo, referido asimismo al estado de tramitación del expediente de actividad clasificada.

Finalmente, el tema ha sido estudiado por la Comisión de Urbanismo del Ayuntamiento en reunión celebrada el día 8 de mayo. Teniendo en cuenta los grandes perjuicios que produciría la paralización de los trabajos, indican que lo más conveniente es continuar con las obras, tratando mientras tanto de legalizar el expediente.

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad continuar con la ejecución de los trabajos, sin interrupción alguna, de forma que puedan ser finalizados dentro del plazo previsto. Por



urpetzegarritasunari buruz gaur egun prestatzen ari diren azterketa Udalak jasotzen duen bezain laster, bilera bat deituko da Ur-Konfederazioarekin, proiektuarekin zerikusia duten alde ezberdinen berri eman eta haren jarraipena egiteko.

## 7 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI.

Azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatezak eman dituen ebazpenen zerrenda irakurri da.

Ondoren eta Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek, premiazko arrazoiak direla eta, Plenoak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihon gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Horren harira, oroitarazten dute maiatzaren 3an jaso zela Udaleko Erregistro Orokorrean (1.290. sarrera) akordio-proposamen bat, Iban Maia Ormazabal jaunak sinatua eta Euskal Herriko egoera politikoari buruzkoa.

Alkate jaunak adierazi du Kultura Batzordeko karpeta utzia zuela aztertzeko, baina, ikusten bada gaiak premia duela, ez duela arazorik hura aztertzeko.

Osoko Bilkurak erabaki du, aho batez, aferaren premia onartzea, eta segidan hura

otra parte y en cuanto el Ayuntamiento reciba el estudio de inundabilidad que están redactando actualmente sus técnicos, se convocará una reunión con la Confederación Hidrográfica, a fin de explicarles los diversos aspectos relacionados con el proyecto y hacer un seguimiento del mismo.

## 7 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.


Se da lectura a una relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta la fecha.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

Recuerdan al respecto que con fecha 3 de mayo se recibió en el Registro General del Ayuntamiento (entrada nº 1.290) una propuesta de acuerdo suscrita por don Iban Maia Ormazabal y relativa a la situación política de Euskal Herria.

El señor alcalde señala que lo había dejado en la carpeta de la Comisión de Cultura para su examen, pero que si el tema se considera urgente no tiene inconveniente en examinarlo.

El Pleno acuerda, por unanimidad, apreciar la urgencia del asunto, por lo que seguidamente éste



8

eztabaidatzera pasatu da.

pasa a ser tratado.

### **EUSKAL HERRIKO EGOERA POLITIKOARI BURUZKO ERABAKIA.**

Aurkeztutako idazkia ikusita, Osoko Bilkurak honako erabaki hauek hartu ditu:

“1 – Udal honek, Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoen errespetua aldarrikatzen du eta sortu den egoera politikoa sendotzeko eskubide horien aldeko urratsak ematea ezinbertzekoa dela deritzo.

2 – Aipatutako eskubide horien urrapen larria den heinean, ilegalizazio politika bertan behera uzteko aldarrikatzen dio PSOE-ko Gobernuari, Udal honek.

3 – Udal honek, ilegalizazio politikaren ondorioz Udal hauteskundeetan herritarren babesak jaso zuten hautatuak beren eskubideak gauzatuak izan ditzaten urratsak emateko konpromezua hartzen du; instituzio gisa egoerak eskatzen digun mailan egoteak, herritarren borondatea errespetatzera behartzen gaituelako.”

### **8 - OSOKO BILKURAREN KONTROL JARDUERA. ESKARI-GALDERAK.**

Deñe Abuin andreak zera dio: “Nik badut galdera pare bat:

Aintzineko Plenoko data zeraman gairerrendan, apirilaren 11koa, aurrekontuaren aldaketak zer ziren lehenagokoak edo geroagokoak?”

Alkate jaunak erantzun du: “Erantzuna emanen dizut, ez naiz oroitzen”.

### **ACUERDO SOBRE LA SITUACIÓN POLÍTICA DE EUSKAL HERRIA.**

A la vista del escrito presentado, el Pleno adopta los siguientes acuerdos por unanimidad:

“1º) Este Ayuntamiento reivindica el respeto de los derechos civiles y políticos de Euskal Herria y considera imprescindible dar pasos a favor de esos derechos, a fin de fortalecer la situación política que ha surgido.

2º) En la medida en que constituye una vulneración grave de esos derechos, este Ayuntamiento reivindica del Gobierno del PSOE que la ilegalización política quede anulada.


3º) Este Ayuntamiento adopta el compromiso de dar pasos para que los electos que recibieron el apoyo de los vecinos en las elecciones municipales tengan garantizados sus derechos; porque el estar a la altura que la situación nos exige como institución, nos obliga a respetar la voluntad de los ciudadanos”.

### **8 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Doña Deñe Abuin indica: “Yo sí tengo un par de preguntas:

El orden del día en el que iba la fecha del Pleno anterior, del 11 de abril, los cambios del Presupuesto que eran ¿anteriores o posteriores?”.

Responde el señor alcalde: “Le contestaré, no me acuerdo”.



Abuin: “Apirilaren 7an, ortzirala, Gabi Igarzabalek alkateari eskatu zion, Juan Fermin Michelenari, aurrekontuak mahai gainean uzteko, ikusi genituelako bazirela kontu-sail batzuk batzordetik pasatu ez zirenak. Erantzun zion baietz, mahai gainean utzi zirela, eta kontu-sail horiek ziren lau urterako obrak, futbol zelaiko aldagelak eta garraioa igerilekuetara, bertzeak bertze. Hori ortziralean 7an, eta astelehenean, 10, diferentzia 42.620 eurokoa da. Beraz, honekin erraten ari naiz bezperan bai bazirela aldaketak. Honekin bakarrik frogatu nahi dut ez duela deus ikustekorik izan ni eta Gabi oporretara joan izanak aurrekontuak aztertzeko denbora gehiago eskatzerako orduan.

Eta gero alkatetzarentzat dudan bertze galdera da, ea pentsatzen duen segitzea presio honekin langileengan, guk Udalean libreki lana ez egin ahal izateko, eta hau nahiko nuke orain erantzutea eta ez hemendik hilabetera”.

Alkatea: “Beno, Gabik ez zidan Kuatrienalaren gaia baino eskatu. Deus gehiago. Eta kuatrienalaren gaia jakina hirigintzako batzordean egon zela, eta kide guztiek ederki ezagutzen zuten, eta gainera Plenoa baino nahikoa lehenagotik. Oninek irensten ez duena da aurrekontu batzuk onartu ditugula, eta, jakina, ez digu inolako erritmorik inposatu behar EAJ-PNV/EA koalizioak dugunetik aparte, Udal honetako gehiengo absolutua baitugu. Hori da errealitatea eta deus ere gehiago.

Eta langileen gaiari helduta, ez dut uste izan denik inon inolako presiorik edo antzekorik jasan

Abuin: “El viernes 7 de abril Gabi Igarzabal le pidió al alcalde, a Juan Fermín Michelena, que se dejaran los Presupuestos encima de la mesa porque vimos algunas partidas que no habían pasado por la Comisión. Le contestó que sí que se dejaban encima de la mesa y esas partidas eran partidas como el Cuatrienal, los vestuarios del campo de fútbol y el transporte a las piscinas. Eso el viernes 7 y el lunes 10 la diferencia es de 42.640 euros. Con lo cual con esto estoy diciendo que en la víspera sí que había cambios. Con estos solo quiero probar, que no tiene nada que ver que Gabi y yo nos fuéramos de vacaciones a la hora de pedir más tiempo para estudiar los Presupuestos.

Y luego otra pregunta que tengo para el alcalde es a ver si piensa seguir con esta presión a los trabajadores para que nosotros no podamos trabajar libremente en este Ayuntamiento y esto me gustaría que me contestara ahora y no de aquí a un mes”.

Alcalde: “Bueno Gabi no me pidió nada más que para el tema del Cuatrienal. Nada más. Y el tema del Cuatrienal, por supuesto que estuvo en la Comisión de Urbanismo y perfectamente conocido por todos sus miembros y bastante antes que el Pleno además. Onín lo que no traga es que hemos aprobado unos Presupuestos y, por supuesto, no nos va a imponer ningún ritmo distinto al que tenemos la coalición PNV-EAJ/EA, que tenemos mayoría absoluta en este Ayuntamiento. Esta es la realidad y nada más.

Y el tema de los trabajadores, no creo que ninguno haya tenido ninguna presión ni nada

duenik Alkatetzatik, baina ezta ere ez dut utziko inork haiek bere nahierara erabil ditzan.”

Abuin: “Bada, nik bertze galdera dut alkate jaunarentzat: Zer ari zara erraten?, langileak gure nahierara erabiltzen ari garela?”.

Alkatea: “Ez. Orokorrean ez diot inori utziko langileak berak nahi duen bezala erabiltzen”.

Gabriel Igarzabal: “Aurrekontuari dagokionean. Garbi da aurrekontua termometro bat dela erakusteko nolakoak diren harremanak lanean Udala osatzen duten taldeen artean. Ulertzen dugu EAJ/Eari gustatu ez izana aurrekontu hau aho batez ez onartua izatea-, Oninen sostenguarekin.

Argitu nahi dut alkateari aurrekontuen onespena gibelatzeko egin nion deiaren aipamena dela-eta, momentu horretan ez zegoela Oninen aldetik inolako asmorik aurrekontuak ez onartzeko. Hirigintza batzordean, alkateak erran duen bezala, aipatu zen erreserban ziren Lau Urterako Planeko obra batzuk onartu zirela. Ez zen kuantifikatu inbertsio horien kostua, eta eskatu genuena izan zen oraindik balorazio hori ez genuenez (hori ortziraLEAN izan zen), denbora eskatzen genuen aurrekontu horiek aztertzeke, eta alkateak aipatu zuen mahai gainean uzteke aukera, eta Oninek kontra eman zuen botoa ez zuelako aurrekontuak aztertzeke denborarik izan. Horrekin ez dugu inolaz ere errentagarritasun politikorik ateri nahi aurrekontuari. Hori argi eta garbi geldidadila”.

Alkatea: “Lau Urterako plana ez zen aipatu, bazen txosten bat idatzia, urtez urte, egin behar ziren

parecido desde la Alcaldía, pero tampoco permitiré que nadie los utilice a su antojo”.

Abuin: “Pues yo tengo otra pregunta para el señor alcalde: ¿Qué estás diciendo?, ¿Qué estamos utilizando a los trabajadores a nuestro antojo?”.

Alcalde: “No. En general no permitiré a nadie que utilice a los trabajadores como él quiera”.

Gabriel Igarzabal: “Con respecto al Presupuesto. El Presupuesto está claro que es un termómetro que refleja cuales son las relaciones en el trabajo de los grupos que componen el Ayuntamiento. Entendemos que a PNV/ EA no les haya gustado que no se haya aprobado este Presupuesto por unanimidad, con el apoyo de Onín.

Quiero aclarar por referencias a mi llamada al alcalde solicitando posponer la aprobación de los Presupuestos, que en ese momento en absoluto había ninguna intención por parte de Onín de rechazar los mismos. En la Comisión de Urbanismo, como ha comentado el Alcalde, se comentó que había concedida una serie de puntos del Plan Cuatrienal que estaban en reserva. No se cuantificó el coste de esas inversiones y lo que pedimos fue que como todavía no tenemos esa valoración (eso fue el viernes) pedíamos tiempo para estudiar esos Presupuestos y el alcalde respondió la posibilidad de que se dejaran encima de la mesa y Onín votó en contra de los Presupuestos por falta de tiempo para analizarlos. En absoluto buscamos con eso sacar rentabilidad política al Presupuesto. Que quede claro eso”.

Alcalde: “El Plan Cuatrienal no se comentó, había un informe por escrito, año a año, de las

inbertsioena”.

Igarzabal: “Batzerdean ez zen zifrarik aipatu”.

Abuin: “Azken galdera. Gustatuko litzaiguke jakitea nola doazen artxiboetako lanak. Jakin genitzake? Batzerdearen bidez jakin genitzake?. Jakin nahi dugu aurten zer egin den. Ea informazio hori ematen ahal diguzuen guk eramaten dugun batzerdeetako batean”.


Aipatu egunaren ilunabarreko zortziak eta berrogeita hamazazpi minutu direnean, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak bilera amaitutzat eman du. Nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

inversiones que había que hacer”.

Igarzabal: “En la Comisión no se comentaron cifras”.

Abuin: “Última pregunta. Nos gustaría saber cómo van los trabajos de los archivos. ¿Podría ser?. ¿Podríamos saber por la Comisión?. Queremos saber lo que se ha hecho este año. A ver si nos podéis dar esa información en alguna de las Comisiones que llevamos nosotros”.

Siendo las veinte horas y cincuenta y siete minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.

The image shows several handwritten signatures in black ink. There are approximately seven distinct signatures, some of which are quite stylized and overlapping. The signatures are located below the text of the meeting minutes.